



**IRIZPEN ZK.: D20-022**

**IRIZPENA, POLIZIA-JARDUNETAN JASOTZEN DIREN DATU PERTSONALAK  
HIRUGARRENEI KOMUNIKATZEARI BURUZKOA**

**AURREKARIAK**

**LEHENENGO:** Udaleko alkateak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskari-idazkiak honako hau dio:

*«Udalak, Udaltzaingoko sarjentuaren eta buruaren posta elektronikoko helbidean jasotako mezu baten bidez, METRO BILBAOren zenbait eskari jaso zituen, zeinen bitartez idazki honen eranskinetan zehazten diren gorabehera batzuetan parte hartu zuten pertsonen datuak eskaintzen baitira.*

*Udalak galdera hau egiten du, jakiteko ea METRO BILBAOk agiri honetan agertzen den moduan eskatutako informazioa bidaltzea zuzenbidearen arabera ondo dagoen, eta ea betetzen den aplikatu beharreko legeria, batez ere datu pertsonalak babesteari buruzko araudia eta segurtasun-eskema nazionala; eta, hala badagokio, kontuan hartu behar diren kautelak ere bai.*

*Xede horrekin, mezu honi atxikita doaz METRO BILBAOk aztergai den kasuari buruz igorritako bi mezu elektroniko.»*

*[2020ko uztailaren 28ko mezu elektronikoa]:*

*«MBko Segurtasun Unitatekook eskertuko genizueke beherago azaltzen den gorabeheran, MBren geltokian gertatutako horretan parte hartu zuen pertsonaren datuak guri bidaltzea, pertsona hura Udaltzaingoak identifikatu baitzuen:*

*Gorabehera-zenbakia: 2.001.791*

*Hasiera Eguna/Ordua: 2020-07-24 / 16:34:00*

*Gorabeheraren azpimultzoa: Gorabeherak segurtasun-zaintzaileen aurka*

*Gorabeheraren arloa: Zaintzaileei mehatxu eta irain egitea*

*Kokalekua:*

*Deskribapena: Erabiltzaile batek segurtasun-zaintzaile batzuei irain egin die.*

*Ebazpena: Tren-unitate baten barruan esnarazi dute, oldartu egin da eta segurtasun-zaintzaileei irain egin die. Honako hau esan die: putakumeak, marikoi halakoak, hil behar zaituztet, hortik harrapatzen bazaituztet gorriak ikusiko dituzue. Udaltzaingoak identifikatu zuen, gorabehera-zenbakia 10153/2020 da.»*

*[2020ko irailaren 25eko mezu elektronikoa]:*

*«MBko Segurtasun Unitatekook eskertuko genizueke beherago azaltzen den gorabeheran, MBren geltokian gertatutako horretan parte hartu zuten pertsonen datuak guri bidaltzea, pertsona haiek Udaltzaingoak geltokian identifikatu baitzituen.*

*«Datu horiek eskatu ziren salaketa jartzeko Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailean, irailaren 29ko 38/2015 Legearen, Trenbideen Sektoreari*



*buruzkoaren 108. artikuluan edo uztailaren 30eko 16/1987 Legearen, Lehorreko Garraioak Antolatzeari buruzkoaren 142. artikuluan xedatuta dagoena urratzeagatik.»*

*Gorabehera-zenbakia: 2.002.297*

*Hasiera Eguna/Ordua: 2020/9/19 / 11:00:58*

*Gorabehera-mota: Herritarren segurtasunaren arloko gorabehera*

*Gorabeheraren azpimultzoa: Iruzurra*

*Gorabeheraren arloa: Txartelik ez daukaten bidaiariak*

*Kokalekua:*

*Azalpena: 4 erabiltzaile irten dira eta haietariko bat ordaindu gabe irten da: Handik gutxira berriro sartu dira eta haietariko bat ordaindu gabe sartu da.*

*Ebazpena: Udaltzaingoak identifikatu ditu, kanpoaldean egin duten lapurreta batengatik. Irudiak ikusitakoan iruzurraz konturatu gara.».*

**BIGARREN:** Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.».*

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetu zaio ea METRO BILBAOk agertzen den moduan eskatutako informazioa bidaltzea zuzenbidearen arabera ondo dagoen, eta ea betetzen den aplikatu beharreko legeria, batez ere datu pertsonalak babesteari buruzko araudia eta segurtasun-eskema nazionala; eta, hala badagokio, kontuan hartu behar diren kautelak ere bai.

Bulegoak erantzuna emango dio egindako kontsultari datuak babesteko oinarrizko eskubidearen ikuspuntutik (2/2004 Legearen 17.1 artikulua); dena dela, beste eskubide batzuk ere aztertu ahal dira, oinarrizko eskubide horrekin talka egin ahal dutenak –edo ez–

METRO BILBAOk Udalari eskatutako informazioa metro-geltokian gertatutako gorabeheretan parte hartu zuten pertsonen datuei buruzkoa da, pertsona horiek Udaltzaingoak identifikatu baitzituen hainbat jarduketatan.

Errekerimendu batean ere ez da zehazten Udalari zein datu pertsonal eskatzen zaizkion.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 4.1 artikuluan (datu pertsonalen tratamenduari horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Erregelamendua) jasota dago datu pertsonalen definizioa. Hona hemen definizioa:

*«“Datu pertsonalak”: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri («interesdun») bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka,*



*eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».*

Bestalde, Udaltzaingoak, polizia-jardunetan pertsona jakinei buruzko informazioa eskatzean nahiz, egokia izanez gero, pertsona horien informazioa hirugarrenei komunikatzean, datu pertsonalen tratamendua egiten du, Erregelamendu Orokorraren 4.2) artikulua definitzen duenez:

*«Datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».*

Galderaren xede den kasuan planteatzen da hirugarren batek (Metro Bilbao) Udaltzaingoi eskaria egin ziola, metro-geltokian gertatutako gorabehera batzuetan parte hartu duten pertsonen datuak emateko. Laburbilduta, hirugarren horrek datuen «komunikazio» edo «lagapen» bat egin zuen.

Erregelamendu Orokorrak 6.1 artikuluan ezartzen du zein kasutan dagoen legitimatuta datu pertsonalen tratamendua:

- «a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.*
- b) Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.*
- c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.*
- d) Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi-interesak babesteko.*
- e) Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.*
- f) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen interes legitimoei erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarrizko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean».*

1. paragrafoko f) letran xedatutakoa ez zaio aplikatuko agintaritza publikoek beren eginkizunetan dihardutela egindako tratamenduari.

Beraz, datu pertsonalen tratamendu orok legitimatuta egon behar du lehenago transkribatu den Erregelamendu Orokorraren 6.1 artikuluko kausetariko bat dela medio.

Eskatutako lagapena legitimatzen duten kausen artean lehenengoa interesdunaren adostasuna da, eta kasu honetan, antza denez, ezin da hori aplikatu. Horregatik, zehaztu beharko da tratamendua legitimatzen duten gainerako kausetariko bat dagoen ala ez.



Halaber, kontuan izan behar dugu datu pertsonal horiek Udaltzaingoak jaso dituela bere polizia-jardunetan. Beraz, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren 27. artikuluan arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datuen tratamenduari buruz ezartzen dena aplikatu beharko litzateke, baita 3/2018 Lege Organikoaren 10. artikuluan, izaera penaleko datuen tratamenduari buruzkoan ezartzen dena ere:

*«27. artikulua. Arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datuen tratamendua.*

*1. (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 86. artikulua ondoz ondo, arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datuen tratamendua, arau-hauste eta zehapen haiekin zerikusia duten erregistroen mantentzeak barne, honako hauek betetzeko exijentzia dakar:*

*a) Tratamendu horien arduradunak organo eskudunak izatea zehapen-prozedura bideratzeko, arau-hausteak aitortzeko edo zehapenak jartzeko.*

*b) Tratamendua zer helburu duen, hori lortzeko behar diren datuen eta ez gehiagoren tratamendua izatea*

**2. Aurreko apartatuan aurreikusitako baldintzetako bat betetzen ez denean, arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datuen tratamendurako interesdunaren adostasuna izan beharko da edo lege mailako arau batek baimendu beharko du, zeinaren bidez arautuko baitira, hala badagokio, ukituen eskubide eta askatasunetarako berme osagarriak.**

*3. Aurreko apartatuetan jasotako kasuetan ez beste guztietan, abokatuek eta prokuradoreek eta ez beste inork egin ahalko dituzte arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datuen tratamendua, eta soilik tratamenduaren helburua bada haien bezeroek emandako informazioa biltzea beren eginkizuna burutzeko.*

*10. artikulua. Izaera penaleko datuen tratamendua.*

*1. Baldin eta kondena eta arau-hauste penalei eta horiekin loturiko prozedura eta kautelazko eta segurtasunezko neurriei buruzko datu pertsonalen tratamendua ez bada helburu arau-hauste penalak prebenitzea, ikertzea, detektatzea edo epaitzea edo zehapen penalak betearaztea, **bakarrik egin ahalko da Batasunaren zuzenbidearen arauen, lege organiko honen edo lege mailako beste arau batzuen babesean. [...]».***

Horrenbestez, eta datu pertsonalen komunikazio edo lagapena datuak babesteko araudiarekin bat datorren ala ez aztertzeko, Metro Bilbaok egindako bi informazio-eskariak bereizi behar dira:

## **I.- Zaintzaileei mehatxu eta irain egiteagatik gertatutako gorabehera dela-eta informazioa eskatzea.**

Kontsultan ematen den informaziotik ez da argi ondorioztatzen Udaltzaingoari zertarako eskatzen zaizkion gorabeheran parte hartu zuen pertsonaren datuak.

Komunikazio horrek babesa izan beharko luke Erregelamendu Orokorraren 6.1 artikuluan jasota dauden oinarri juridikoetako batean.

Horren haritik, Prozedura Kriminalaren Legeak (PKL) 259., 262. eta 264. artikuluetan kasu batzuk ezartzen ditu, zeinetan edozein delituren egitea ikusten duenak horren salaketa egin



(hau da, komunikatu) beharko baitio poliziar, fiskalari edo auzitegiei; bestela, isuna ezar dakiok.

Komunikazio horrek babes izango luke Erregelamendu Orokorren 6.1 c) artikuluan, legeko eginbeharra delako. Eta salaketan jaso beharko dira salatzaileak salatutako egitateari buruz eta horren inguruabarrei buruz dakizkien berri guztiak (PKLren 267. artikulua).

Erregelamendu Orokorren 6.1 artikuluko beste oinarri juridiko bat, datu pertsonalen tratamendua legitimatzen duena, interes legitimo bat egotea izango litzateke [6.1 f) artikulua], non eta interes legitimo horren eta ukituen oinarritzko eskubideen ponderazioa egindakoan interes horien gainean ez dauden oinarritzko eskubide horiek.

Kasu honetan baliteke interes legitimoa egotea, baldin eta gorabeheran parte hartu zuen pertsonaren nortasuna jakitea beharrezkoa bada eskatzailearen benetako babes judizialerako eskubidea bermatzeko (Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua).

Azkenik, informazio-eskaria batere zehatza ez dela kontuan hartuta, nabarmendu behar da Erregelamendu Orokorren ezartzen duen beste printzipio bat, datu pertsonalen tratamendu orotan errespetatu behar dena, «*datuak minimizatzearen printzipioa*» [5.1 c) artikulua], zeinaren bitartez datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatuak izango baitira, haien tratamenduaren helburuen arabera.

Horrek esan nahi du Udalak datuak komunikatzen dituen bakoitzean beharrezkoak edo ezinbestekoak diren gutxieneko datuak komunikatu beharko dituela, datuak zein helburutarako eskatu diren eta horretarako.

## **II.- Txartelik ez daukan bidaiaria dela-eta informazioa eskatzea.**

Kasu horretan, Metro Bilbaok udaltzaingoari informazio pertsonala eskatu izana justifikatu zuen salaketa jartzeko Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailean, irailaren 29ko 38/2015 Legearen, Trenbideen Sektoreari buruzkoaren 108. artikuluan edo uztailaren 30eko 16/1987 Legearen, Lehorreko Garraioak Antolatzeari buruzkoaren 142. artikuluan xedatuta dagoena urratu izanagatik.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila eskuduna da azaldutako jokabidearen ondoriozko zehapen-prozedura hasteko eta izapidetzeko. Dena dela, gure ustez, organo horrek zuzenean udaltzaingoari eskatu behar dio gorabeheran parte hartu zuen pertsona identifikatzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den informazioa (minimizatzearen printzipioa).

Azkenik, eta orokorrean, zera azpimarratu beharko litzateke: datuak arau-hauste eta zehapen administratiboei buruzkoak badira edo arau-hauste eta kondena penalekin lotutako datu pertsonalei buruzkoak badira edo, bestela, horiei lotutako kautelazko eta segurtasuneko prozedura eta neurriekin lotutako datu pertsonalei buruzkoak badira, eta helburua ez bada arau-hauste penalak prebenitzea, ikertzea, detektatzea edo epaitzea edo zehapen penalak betearaztea, datu pertsonalen tratamendu hori 3/2018 Legearen 27. eta 10. artikuluetan hurrenez hurren jasotako mugen mende egongo da.